



14. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida
Alarma Egoeraren 14. eguna. 2020ko martxoaren 29a, igandea.

Larunbata hilak 28ko Kudeaketa / Ekintzak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Zoriontasunak gutxi iraun digu oraingoan. Atzo Orion irekitako aterpetxeaz gain, Udaletxeak eta Diputazioak antzeko espazio gehiagorik irekiko ez dutela esan dute. Orain arte egindako lanaren zentzua geroz eta argiagoa den momentuan, oraindik asetu ez diren etxe edota baliabide beharrak moduren batean edo bestean konpontzea espero dugu.

Bizileku bihurtu daitezkeen baliabideak baitditugu: aterpetxeei dagokienez, Donostian Uliako udal aterpetxea dugu edota Zarautzen Diputazioak kudeatzen duen aterpetxea. Besteak beste, atzoko egunkarian agertu zen bezala, ostatuak Udaletxeari egindako eskaintza datorkigu burura; *“la asociación Hoteles de Gipuzkoa se han puesto en contacto con Alcaldía para colaborar con el Ayuntamiento. Las camas de los alojamientos –hoy cerrados al público por real decreto- estarán disponibles para acoger personas en situación de vulnerabilidad a través del departamento de Acción Social”*. Eta hoteletaz gain, hirian zehar Elizak dituen espazio desberdinetaz ere gogoratu gara: Grosen bertan, Mariaren Bihotza eskola zena, Mirakruz kaleko San Pio X eraikina, Ategorritako bide zaharreko eraikina, etab. Hau guztia dela eta, **larrialdietarako beharrezkoak diren espazioak bilatzeaz gelditu ez daitezen eskatzen diegu instituzioei.**

KOMUNIKABIDEAK. Sareetara eta komunikabideetara 13. Buletina zabaldu da.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK.

Azken bi egunetan zehar, etxez-etxeko elikagai banaketa egiteko gai izan gara auzo desberdinetako boluntarioei esker. Gutxi gora behera, **banaketa hau 150 pertsonara iristen da**, horien artean 14 familia egonik.

Elikagaien donazioari dagokionez, arlo desberdinetatik janaria jasotzen jarraitzen dugu. Atzo bertan **Zurriola Ikastolak** beste 500 jogurt eman zizkigun, beste elikagai freskoren artean. **Zaporeak**-ek ere elikagai lote bat eman zigun, eta ostalaritzatik **Gandarias** eta **Pandora** tabernetaz gain, atzo ere Egiako **Aho-mihi** jatetxearen laguntza jaso genuen.

Ekarpen ekonomikoan, guztira 126 pertsonak egindako diru-sarrerak **7.387€** iristeko aukera eman digute.

Telefono mugikorren beharra izaten jarraitzen dugu.



14. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Hurrengo egunerako Pilulak. *¿Ba al dakigu zeintzuk diren etxerik ez duten pertsonak? ¿Zein behar dituzten? ¿Zein eskubide? ¿Zein amets? ¿Zein gaitasun? ¿Zein laguntza eskaini dezakegun? Galdera hauei zuzenduta aurkezten ditugu Hurrengo eguneko Pilulak.*

2. PILULA

BALIABIDE PROFESIONALAK

Donostiako udal langileen taldeek ez dituzte beharrezkoak diren baliabideak egoera honi aurre egiteko. Egoera honi erreferentzia egin diogunean, azken egunetan Donostian “agertu” diren **kale egoeran dauden 300 pertsonetaz** ari gara. Errealitate hau, aldiz, ez da aste hauetako berria, pertsona hauekin lan egiten dugunok aspaldi salatu dugun egoera bat izanik eta instituzioak jakinaren gainean egonik.

Egoeraren larritasuna dela eta, erantzun apropos bat emateko baliabide profesionalen behar argia dago, oraintxe bertan Donostiako udalean egiten ez den bezala. Arlo hau zuzentzen duten profesionalak guztiz prestatuta daude eta baita interes handia dute, baina aurkezten zaizkien beharrei erantzunak emateko orduan muga argiak aurkitzen dituzte. Egoera hau honelakoa izanik, **lehenatasun politikoei dagokien kontu bat** dela uste dugu, lehen mailako behar gisa ulertuko balute, profesional gehiago kontratatuko liratekelako.

Gure herriko instituzioen egitura dela eta, gai honetan **hiru maila desberdinek parte hartzen dute: udalak, foralak eta gobernuak**. Aipatutako beharrak mahai gainean jartzen saiatzen garenean, mota guztietako arazo administratibo eta erantzukizunei dagozkien nahasteak sortzen dira. Hain zaila izango litzateke guztiak noranzko berdinean ibiltzea? Bakoitzak bere aldetik jarraitzen duen bitartean, gauden lekutik ez mugitzeko arrisku handia dugu.

Gizartea laguntza eskuak eskaintzen ari da. Arlo honetan instituzioak izan arren interbentzioaren erantzule nagusiak, pertsona hauei eskaini nahi dizkiegun erantzun integralki gizartearen eta bizilagunon hartu-eman argia ere eskatzen dute. Orokorrean, boluntarioz osaturiko taldeek edota mugimenduek pertsona hauek gizartean txertatzeko beharrezkoak diren arretak eskaini ditzakete (laguntza, entzumena, ezagutza...). Konturatuko al dira honetaz instituzioak?

Profesional nahikoen kontratazioa, orain.

Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Ekarpenak: cc ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.